

## TARTALOETXEA

### *Kortezubiko Tomas Kobeagak kontatuta 1919an*

Behin bi mutil lurreratu eta bekokian begi bakarra zuen artzainarekin topo egin zuten, eta berarekin joan ziren kobara.

Sartu zirenean, artzainak harlanduzko atea itxi egin zuen.

Gero sua egin eta mutil bat hartu zuen. Gaztearen hanka bat azpian hartu eta bestetik eskuarekin oratu, eta urratu eta erdibi egin zuela. Gero, erdi bat kakuan ipini zuen, eta beste erdia burduntzian erre eta jan zuen.

Beste mutilari jatekoa eskaini zion, baina hark ez zuen jan.

Artzaina lotaratu zenean, mutil hori atea irekitzera joan zen, eta ireki ezin zuenez, artzainaren burduntzia sartu zuen.

Artzaina esnatu zen, baina ezin bilatu mutila, hango ardinarru artean sartuta zegoelako.

Artzainak bere hanka biren erdi-bitik bota zituen ardi eta ardinarru denak kanpora, baita mutila ere ardinarrua zelakoan, ardinarrua lepoan zuen-eta.

Geroago, artzaina uluak egiten hasi zen mutila aurkitu ez zuenean.

Bilbao, 1973